

Europar proiektuan parte hartzen ari dira Ikastolen Elkarte eta Mondragon Unibertsitatea

2016/01/18

Ekonomia krisiak agerian utzi du ikastetxeetan hamar eta hamabost urteko ikasleengan ekintzailetasuna eta harekin lotutako zenbait konpetentzia (sormenezkoak, arriskuak hartzekoak) garatzen lagunduko duten programak martxan jartzea. Erronka horri aurre egiteko, Ikastolen Elkarte eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak YESict (Young Entrepreneurial Skills by ICT) europar proiektuan parte hartzen ari dira. Bi erakunde hauekin batera proiektuan jardungo dute beste erakunde hauek: Antic (Lapurdi), FH Joanneum Uni (Austria), Synthesis (Zipre), Nikosiako Unibertsitatea (Zipre) eta Vaeksthusthus Sjaelland (Danimarka). Kontsortzio honek 2018ko abuztura arte jardungo du lanean. Europako Batzordearen Erasmus+ programak finantzatu du YESict.

Zehazki, Ikastolen Elkarteak eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak ikastetxearen ingurunean ekintzailetasuna garatzea ahalbidetuko duten erreminta digital sortaileen diseinuan eta esperimertzioan kolaboratuko dute.



YESict